

Aitzol udal euskaltegia, 40 urtez euskalduntzen





AURKIBIDEA

Iritzia Uxo Elustondo Arzallus **3**

Elkarrizketa Alejandro Morales,
trofeoetan maisu **4-7**

Bertsoa Oibar Olano **9**

Asteko Gaia Lau hamarkada
euskarari zuzendurik, Aitzol **10-17**

Zientziaren Talaia

Josu Lopez-Gazpio **18-19**

Iritzia Ion Mintegiaga **20**

Iritzia Olatz Peñagarikano **21**

Erreportajea 'Laia' oholtzara,
usadiotik edanda **26-29**



Azaleko irudia
Aitor Arroyo Askarai

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana euskaraz

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





UXOA
ELUSTONDO ARZALLUS
 ERIZAINA ETA
 EUSKAL IKASKETETAN
 GRADUATUA

Lanbidea dela eta

Zertan egin nahi dut lan?». Gutariko askok geure buruari noizbait egin diogun galdera dela esango nuke, diruz aberatsak izan ezean, hala-beharrez lan egitera kondenaturik gaudela esan baitaiteke. Baina zertan? Zertan egin beharko genuke lan? Batzuk umetatik buru argitasun edo norbere izaeraren kontzientzia handia izaten dutelako-edo, oso argi izaten dute zein ogibide duten gustuko eta bokazio, eta urratsez urrats, bidetik atera gabe heltzen dira euren portura. Beste asko, berriz, 18 urterekin artean beraien ibilbidea erabaki ezinik izaten dira. Nire kasuan 15 urte inguru nituen Erizaintza ikastea erabaki nuenean, baina ez zen nire lehen aukera izan.

Animaliak oso maite nituenez, albaitaritza izan zen neure burutik pasatu zen lehenengo ogibidea. Zargozan, gaztelaniaz eta bost urtez ikasi behar zela jakin nuenean, ordea, baztertu egin nuen ideia, ez bainuen etxetik ateratzeko eta gaztelaniaz ikasteko gogorik. Hala, egun batez, pertsona eri eta ezindu bat irudikatu nuen ohe gainean. Egoera horretan dagoen pertsonarentzat laguntza txikiena ere handi izan behar duela pentsatu nuen, eta nik nahiko nukeela bizitzako aldi edo baldintza horietan laguntza jaso. Bada, «zuk jaso nahi baduzu, besteei ere eman». Pentsamendu horretatik iritsi nintzen Erizaintzara. Donostian zegoen fakultatea eta euskaraz ikasiko nuen. Aurrera.

Erizaintza gustura ikasi banuen ere, euskarak beti izan du leku berezia nire bizitzan. Urte luzez oso kontziente izan ez banintzen ere, nire betidaniko pasioa

izan da. Horregatik, 22 urterekin barruko arrak bulztatuta Euskal Filologia ikasi behar nuela esan zidan, eta lantokian lanaldia murrizteko aukera izan nuenean, 27 urterekin, Gasteiza joan nintzen nire ametsa betetzera. Lau urteren buruan, Euskal Ikasketetan graduatu nintzen, eta aurten bigarren urtea dut Hezkuntzan euskarako irakasle gisa. Hala ere, hizkuntza-aren erraiak arakatzea ere izugarri gustatzen zaida-

«Denbora gutxian zenbait pertsonari entzun diedan gisan, lanak ez du beti zertan pasio izan. Bizitza hainbat etapaz osaturik dago, eta norbere bizi egoerara ahalik eta ondoen egokitzen den baliabidea izatea bera ez da gutxi»

nez, ikerketa ere probatu dut azken urte honetan. Ez hezitzaile paperak, ez ikerketak berarekin dakarren bizitza sozial faltak, ordea, ez naute guztiz ase. Hots, nire pasioa den hizkuntzak ez dit oraingoz erabat eroso sentiarazten nauen lanposturik eskaini. Hori horrela, Erizaintzara itzultzeko pentsamendua dabilkit; izan ere, denbora gutxian zenbait pertsonari entzun diedan gisan, lanak ez du beti zertan pasio izan. Azken finean, bizitza hainbat etapaz osaturik dago, eta norbere bizi egoerara ahalik eta ondoen egokitzen den baliabidea izatea bera ez da gutxi.

«Txapelak ondo bordatu nahi badituzu, denbora eskatzen duen lana da»

ALEJANDRO MORALES

ARTISAUA

Alejandro Moralesek bere kabuz zerbait jarri nahi zuen martxan eta garaikurren munduan sartzea erabaki zuen. Txapelak bordatzerakoan kalitateari eta gauzak ondo egiteari ematen dio garrantzia.

Imanol Garcia Landa

Alejandro Morales (Asteasu, 1970) orain 11 urte hasi zen txapelak bordatzen eta garaikurrak egiten, Udalatx Trofeoak izenarekin. Tolosako Letxuga kalean dauka lokala eta bertan egiten ditu bere lanak. Besteak beste, VII. Ataria Pilota Topaketako garaikurrak berak egingo ditu.

Nola hasi zinen ofizio honetan?

Lehen, enkofratzaile bezala egiten nuen lan eraikuntzan, eta arlo hori jaisten hasi zen. Banuen gogoia nire kabuz zerbait egiteko, eta kirola asko gustatzen zaidanez, horrekin lotura zuen zerbait aztertzen hasi nintzen, eta azkenean garaikurren eta txapelen kontuarekin hasi nintzen. Txapelak gainera Tolosarekin lotura handia du, Boinas Elosegui enpresaren bitartez.

Lokalean bertan bordatzen dituzu txapelak?

Bai, makina bertan dut. Hasieran ez nekien nola erabiltzen zen, eta ikasi egin behar izan nuen. Ikusten nuen egokiagoa zela nik neuk egitea bordatzearen lana, eta ez bitartekari

moduan aritzea. Horrela hasi nintzen, eta ordu asko sartu behar izan nituen bordatzearen lana egoki ikas-teko. Garaikurren txapak ere bertan egiten ditugu. Horretan Imanol semeak laguntzen dit. Ni txapelak bordatzen aritzen naiz, horrek eskatzen duelako lan gehiena. Ondo egin nahi baduzu, denbora eskatzen du lan horrek.

Zenbat denbora behar da txapela bat bordatzeko?

Bi ordu edo bi ordu luze; txapelak duen diseinuaren arabera izaten da hori. Lehenengo diseinua egiten dut, eta gero bordatu eta gero errematea egiten diot. [Mus txapelketa baterako egindako txapela eskuan duela] Txapel honetan, adibidez, kartak ere bordatuta daude, beraz, lan handiagoa eskatzen du, bai diseina-

tzerakoan eta gero bordatu lana egiteko ere. Batzuetan ikusi izan dut partxe bat jarri dela txapelean, eta gero kartaren figura gainean bordatu dela, baina nik karta osoa bordatuz osatzen dut.

Eta diseinuak ere egiten dituzu, beraz.

Hau da, ez da soilik letrak jartzea...

Hori da, diseinuak ere nik egiten ditut.

«Gaur egun boladan dago txapela eta zapia ezkontzarako opari moduan»



Alejandro Morales, Tolosako Letxuga kalean duen lokalaren aurrean. I.G.L.

Noski, lehenengo probak egin behar izaten dira ikusteko nola geratzen den, eta ondoren txapela bordatzen duzu. Kontuan izan behar da txapelaren telak mugimendu bat duela, eta horretara moldatu egin behar da. Hasi nintzenetik gaur egunera ikasten eta hobetzen jarraitu dut.

Zein izaten dira zure bezeroak?

Adibidez, pilota txapelketa profesionaletarako txapelak egiten ditut. Justu buruz buruko txapelketaren txapela izan da azkena. Horrez gain, Euskal Herriko Itzuliaren eta Donostiako Klasikoaren irabazleentzako txapelak ere nik egiten ditut. Pilotako txapelketak asko egiten ditut, eta gaur egun boladan dago ezkontzetarako egitea; hau da, gizonezkoarentzat txapela eta emakumezkoarentzat bordatutako zapia. Horrelako gero eta eskari gehiago jasotzen ditugu. Baita oroigarri moduan, norbaitek erretiroa hartzen duenean, adibidez. Bai, egia esan, txapela boladan

dagoen zerbait da. Oso hemengoa da eta horrek ere laguntzen du.

Zer txapel mota erabiltzen dituzu?

Nik bakarrik Boinas Elozegui enpresarekin egiten dut lan. Kalitate onena dute, eta lehengai onena izatea oso garrantzitsua da. Gainera, Tolosan bertan egiten dira, eta nola ez dugu ba bertakoa babestuko? Lokalean bertan badut beste txapel mota bat, eta biak erakusten dizkiet bezeroei, ikusteko zein den aldea. Beste presentzia bat dute Boinas Elozegui etxeko txapelek, eta gero txapeldunek janzen dutenean, hori nabaritu egiten da.

Garaikurrei dagokionez, ohiko kopa formaz gain, bestelakoak ere badituzue.

Bai, eta horien diseinuak guk geuk egiten ditugu. Antolatzaileek eskatu izan digute diseinu bat egitea zerbait berezia nahi dutenean, betiko koparen ordeaz. Adibidez, txirrindularitzarekin zerikusia duen garai-

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en.

kur bat egitean, pinoiak, gorpila eta katea erabiltzea zerbait egiteko. Ataria Pilota Txapelketaren aurreko edizioetakoek ere logoa erabiliz egindako garaikurra dute. Batzuek zerbait pertsonalizatua eskatzen dute, eta aukera hori ere eskaintzen dugu. Modu horretako gero eta eskari gehiago jasotzen ditugu.

Kopek, halere, bere lekua izaten jarraitzen dute garaikur moduan.

Bai, noski, eta haurrei gehiago gustatzen zaizkie kopak, ilusio gehiago egiten die. Nolabait identifikatuta edo barneratuta daukagu kopa bat jasotzea zerbait irabaztearekin. Haurrak izan ginenean, kopa bat jasotzea oso berezia zen, eta gaur egun ere ikusten duzu haurrengan zirrara hori. Beraz, norbait etortzen denean garaikurren bila eta haurrentzat bada, hori esaten diet. Garaikurra jasoko dutenek beste adin bat dutenean, ez du zertan garaikurrak kopa forma izan behar.

Eta Euskal Herrikoak ez direnek txapelen bat jasotzen dutenean, adibidez txirrindulariek, nola hartzen dute?

Zerbait berezia bezala hartzen dutela diote. Justu, orain gutxi bukatu da emakumezkoen Itzulia, eta Julian Eraso antolakuntza buruak azaldu zidanez, aurtengo irabazleari, Marlen Reusserri, asko gustatu zitzaion txapela jasotzea. Zerbait ezberdina da, beste leku batzuetan ematen ez dena, eta berezia iruditu zitzaion.



Alejandro Morales eta Remco Evenepoel, erdian. Aldeetan, Moralesen bi semeak: Imanol ezkerrean eta Eneko eskuinean.

Remco Evenepoel txirrindulariarekin badugu istorio bat ere. Aurreko urtean Donostiako Klasikoa irabazi zuen, eta bigarren aldia izan zen. Instagram bitartez gurekin jarri zen harremanetan, eta taldeko txirrindularientzat zein beste taldekideentzat txapel bana eskatu zigun. Madrilera joan ginen txapelak eramatera, justu Espainiako Vuelta bukatu zen egunean; berak irabazi zuen. Bere hotelera joan ginen, ni eta nire bi semeak, Eneko eta Imanol.



hilberriak urteurrenak • eskertzak

ataria@ataria.eus
943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu.
Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.



XXV. URTEURRENA

Ina Zeberio

(1998ko ekainaren 5ean Gernikan eraila)

*Hogeita bost urte pasa dira
Erail zintuztenetik
Hala ere jarraitzen degu zuk
Argitutako bidetik
Ez degu sekula ahaztuko
Guk zure irribarrerik
Maite zaitugu*

Ettxekoak

Ekainak 3, larunbata,
Gernikan eraildako lekuan.

Ekainak 4, igandea,
Lizartzan monolitoaren aurrean.

LIZARTZA, 2023ko ekainaren 2an.

Oso gustura zegoen, Vuelta irabazi berritan, eta behin baino gehiagotan eman zizkigun eskerrak txapelengatik. Maskara jantzita zuen, ondoren Munduko Txapelketara joan behar zuelako; hori ere irabazi egin zuen.

Zure lana ez da soilik hemen inguruan geratzen, beraz. Bidaia ere egiten du.

Bai, aipatu dugun bi kasu horietan, bai. Gero, jendeak ere eskatu dit adibidez Argentinan dituen senideentzat txapelak. Hemengo zerbait eman nahi dietelako. Bestalde, Guadalajarako Marchamalo triatloi klubekoek eskatu dizkirate txapelak egitea, antolatzen duten triatloi probako irabazleentzako. Hemengo probetan irabazleei ematen zitzaiela ikusi, gustatu egin zitzairen ideia, eta eskatzen hasi ziren. Urtero eskatzen didate, beraz, harrera ona duen seinale. Errioxatik ere eskatzen dizkirate, pilotarekin lotutako txapelketentzako.

Zure ofizioan aritzen den beste asko badaude?

Donostian badago norbait, baina bestela ez dut eza gutzen. Ez dut uste ofizio honetan ari den jende asko dagoenik. Gainera, asko mugitu behar zara. Hasieran ni asko mugitu nintzen: nire katalogoak hartzen nituen eta batera eta bestera bidaiatzen nuen. Orain esan daiteke ez daukadala mugitu beharrik, orain niregana etortzen dira. Ahoz ahokoak asko egiten du horrelakoetan. Hori asko nabaritzen da ezkontzekin



Igandean jokatu da 2023ko Buruz Buruko Pilota Txapelketa, Jokin Altuna amezketarraren eta Aitor Elordiren artean. Txapelkunak jantziko duen txapela (irudian) egin du Alejandro Moralesek. «Ea Altunak janzten duen», esan du artisauak.

lotutako oparietan. Azken finean, ikusten duzu egiten dugun lana baloratzen dela.

Internet eta sare sozialak ere erabiltzen dituzue?

Bai, webgunea badugu, *Udalatxtrofeos.com*, eta gero Instagram erabiltzen dugu, eta tarteka Facebook ere bai. Lehen esan bezala, Evenepoelek Instagram bitartez egin zuen kontaktua gurekin.



- IV. URTEURRENA -

Aitor Olano Jauregi



*Ederra izan zen zu maitatzea,
handia utzi zenigun hutsune eta arrastoa.
Badakigu hor zaudela
eta maite dugu zu bihotzean sentitzea.*
Gurasoak

IBARRA, 2023ko ekainaren 2an.



1.990€* -tik hasita

egokitu zure sukaldeak zure bizitzara

Adinekoentzat **segurtasuna** eta **irigarritasuna** ematen dituen soluzioa.

*Basic-pack eguneraketa. Informazio gehiago: www.solumobel.com



altzari egokitu soluzio integralak

Aduna garden

Udaberri-udako ordutegia
Astelehenetik larunbatera 09:00-20:00
Igande eta jalegunetan 09:00-14:00

Zubitxiki 16, Aduna
943 93 03 50

Jarraiguazu!  

UDAKO LANDAREAK BADATOZ!

Udaz gehiago gozatzeko
lore eta landare berriak
prest ditugu zure kanpoko
tokiak txukuntzeko.

- Landareak eta zuhaixkak.
- Altzari eta barbakoak.
- Loreak eta opariak.



ORAIN
ENDANEAKO
PRODUKTUAK
ESKURAGARRI

23/24 ikasturteko aurrematrikula ABANTAILAK

aek
euskara praktikoa

Egin
aurrematrikula



EKAINA		1	2	3	4
5	6	7	8	9	10
12	13	14	15	16	17
19	20	21			24
26	27	28			25

%5_{eko}
deskontua

Euskara ikastaroak

Zizurkien, Villabonan, Anoetan, Iruran, Ibarran, Alegian, Ikaztegieta eta Lizartzan

Aurrematrikulazioa: maiatzaren 15etik ekainaren 28ra

- Aurrez aurreko ikastaroak
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak
- Autoikaskuntza ikastaroak
- Kanpoko jatorri dutenentzako AISA harrera ikastaroak

**Tolosaldeko
AEK Euskaltegia**

Egin orain 23-24 ikasturterako aurrematrikula eta **%5eko deskontua**
izango duzu **matrikula prezioan!**

Plazaola kalea 2, beheak. Andoain

943 59 17 04 · 688 74 66 43 · andoain@aec.eus



**OIBAR OLANO
GOIKOETXEA**
HARITUZ-EKO
KIDEA

Guk trukean mena

Auto elektrikoa da
Modan-modan dagoena
Eta hiritan sartzeko
Kendu digute baimena
Ez baita nahikoa eko
Gure kotxe berriena
Bateriadun autoa
«Ez kutsatzeko onena»
Nola izan esan digute
Eta guk trukean mena
Jakintsu ta iritzi asko
Arrazoi omen dutena
Berriz astokin hastia
Izango al da hobena?
Nola esan izan digute
Eta guk trukean mena
Hai(e)n beharretara biziz
Nor da morroi zintzoena?
Ea noiz erabiltzen deun
Gizalegearen trena



«Beharra izan da irauteko gakoa»

**AXUN LOPETEGI,
MARTXELI SAGASTUME
ETA AINARA ARAKAMA**

AITZOL UDAL EUSKALTEGIKO
ZUZENDARI OHIAK ETA
EGUNGO ZUZENDARIA

Lau hamarkadako ibilbidea ondu du aurten Tolosako Aitzol udal euskaltegiak. Aurretik zuzendari izandako bi irakasle eta gaur egungo zuzendaria aritu dira euskaltegiaren bilakaeraz.

Aitor Arroyo Askarai

Mahaiaren bueltan eseri dira Ainara Arakama (Lazkao, 1975), Axun Lopetegi (Belauntza, 1962) eta Martxeli Sagastume (Alegia, 1964). Aitzol udal euskaltegiko zuzendaria da lehena; karguan aurretik izanak,

beste biak. Hirurak batzen ditu euskara irakasteko zentroak eta pasioak. Berrogei urte bete ditu aurten euskaltegiak, eta horixe izan dute hizpide. Ondo ulertzen dute elkar, eta bata bestearen erantzunak osa-



tzen aritu dira galderak erantzun bitartean: nola aldatu diren metodologiak, ikasleen profilak, egoera soziolinguistikoa... Oro har kezkatuta azaldu dira, iruditzen baitzaie gaur egun jendea «erlaxatuta dagoela» euskararen egoerarekin.

Nola oroitzen dituzue euskaltegiaren lehen urteak?

Axun Lopetegui: Garai hartan gazteenetakoak ginen. Klaseak gehiago izaten ziren arratsaldeetan, alegia, bazkalondotik hamarrak arte; eta, goizetan, askoz gutxiago. Geroago hiru txanda izaten ziren: goizekoa, arratsaldekoa eta iluntzekoa. Gogoratzen naiz

iluntzeetako txanda zazpietatik hamarretara dena jarraian izaten zela, tartean ordu erdiko atsedenarekin. Jende gehiena txanda horretan izaten zen, lanetik ateratakoan etortzen ziren.

Ainara Arakama: Franco hil osteko garaiak ziren, eta egoera soziopolitikoak ezberdina zen oso.

Martxeli Sagastume: Gizartea ere ezberdina zen. Aisialdira begira ia ez zegoen ezer poteoaz beste. Gaur egun dagoen kirol grin hori orduan ez zen existitzen; orokorrean, behintzat. Eta euskaltegia bera sozializatzeko espazio bat ere bazen.

Arakama: Jendea ere oso konprometitua zen; militantziagatik etortzen ziren. Gainera, eskolak hezkuntza hori ematen ez zuenez, jendea etortzen zen hona hutsune hori betetzera. Gaur egun bezala [barez, ironia puntuarekin].

Sagastume: Uf, ez dauka inolako zerikusirik.

Nola aldatu da ordutik hona?

Arakama: Izugarri aldatu da; ordutegietatik hasita. Gaur egun, iluntzeetan jendeak ez du nahi klaserik; ez du euskaltegira etorri nahi. Lehen topera egoten zen txanda bat bazen, orain ia aurkakoa da. Zazpietatik aurrera badauzkagu eskola batzuk, eta tutoretzetan ere halabeharrez badira gaueko bederatzietan bukatzen dutenak ere; baina, ez da lehen bezala. Lehen trumilka etortzen ziren pertsona horien parekorik ez dago gaur egun.

Lopetegui: Hor kontua da jendea arratsaldeko sei eta erdietatik aurrera kiroldegian sartzen dela eta aurretik libre dagoenak, berriz, ez du nahi iluntzeetan. Aldaketa hori izugarria izan da. Goizetan zein jende mota etortzen da? Askotan, lanik ez dutenak, etorri berriak, etxeko andreak, erretiratuak... Umeak eskolan dauden bitartean etortzen dira azken horiek.

Sagastume: Profil horiek etortzen dira goizetan edo, bestela, bazkalondoan; kontrara, seietatik aurrera etorri beharko lukete lanean daudenak. Baina, horiek ere ez dute nahi izaten. Jende gazteak, berriz, euskaltegira jotzen du lanean edo tituluren bat eskatu dietelako. Baina, arratsaldeko seietatik aurrera ez dute hemen egon nahi, eta normala da;

horiek autoikaskuntzara jotzen dute gehiago.

Arakama: Ezberdintasun handiena da lehen seietatik aurrera etortzen zen jende multzo hori ez zegoela euskaraz alfabetatuta; eta hori betetzera etortzen ziren. Gaur egun, berriz, ia denak alfabetatuta ateratzen dira eskolatik, beraz, hemen hartzen ditugu titulu bat behar dutelako, edo hezkuntza araututik kanpo geratu direlako. Gainera, horietako askok lan egiten dutenez, autoikaskuntza aukeratzen dute.

Gaur egun zein funtzio du euskaltegiak?

Arakama: Gure funtzioa oraintxe da hezkuntza araututik kanpo geratzen den jende multzo hori euskalduntzea. Gure ikasleen profilak honela sailka daitezke: kanpotik etorri den jendea, bai estatuz kanpo bai estatu barrutik; eskolak nolabait euskaldundu ez duen hura; eta, bestela, lan bati begira titulazio konkretu baten bila datozenak.

Euskaltegiko jarduna nola egokitu da Tolosako hezkuntza beharretara?

Arakama: Euskaltegiko klaseez gain, ematen ditugu baita ere Inmakulada Lanbide Ikastolan eta Peñaskalen. Adibidez, Inmakuladan ematen dugun klasea dago bideratuta etxeetan helduak zaintzen dituztenei. Formakuntza txiki bat izaten da, gutxienezkoa, zaindu behar duten pertsona euskalduna bada garrantzitsua da. Irakasleari kostatzen ari zaio: ikasle batzuekin ondo moldatzen da, baina, baditu beste batzuk...

Lopetegi: Peñaskalen ere gauza bera gertatzen da: ikasleak gazte txoak izaten dira, askotan tutorerik gabekoak... Ostalaritzako moduluak ikasten dituzte han, eta jendaurrean lan egiteko gutxienezko ezagutzak irakasten saiatzen gara gu. Kontua da asko alfabetatu ga-

«Lau trebetasun menperatzen ditugu, baina, benetan hezkuntzak behar duena ez dugu lortzen»

MARTXELI SAGASTUME

beak direla, idazten ere justu dakite, eta hizketan gazteleraz ere askotan larri... Orduan saiatzen gara ahozkoa lantzen, baina, gogorra izaten da oso.

Arakama: Eta gure moduluak ere aldatzen doaz. Duela urte batzuk askoz intentsiboagoak ziren gaur egun baino. Orain jendea etortzen da: «Lau egun ez; bakarra bada hobeto». Baina minimo batzuk eman

behar dira, ezinezkoa baita etxean dena ikastea. Jendearen partetik, berriz, eskaera da ahalik eta motzena eta eraginkorrena izatea. Hortxe gabilta oreka bilatu nahian. Orain ditugun moduluak zehatzagoak ere badira. Betiko klase arruntak bai, baina, horrez gain, ostalaritzako taldeentzako espezifikokoak, merkatarientzako... Datorren ikasturtean eskaintzen hasiko gara horiek. Beharra badago.

Autoikaskuntza da eskaintzen duzuen ikasketa eredu bat, eta gora egin du nabarmen. Zer dago horren atzean?

Lopetegi: Indibidualizazio handia dago: bakoitza berera doa, eta ez du besterik jakin nahi. Hori batzuk, behintzat. Beste askok nahiago lukete klaseetara etorri, baina, taldea sortzeko baldintza batzuk ditugu, eta horiek ez badira betetzen, autoikaskuntza da geratzen zaien aukera.

Arakama: Bizitzako gainerako esparruekin ere bateratu behar dute. Jendea gero eta baldintza kaxkarragoetan bizi da. Jende gazte asko daukagu lan eta bizi baldintza oso kaxkarretan, eta horrek ikasteko aukerak zailtzen ditu.

Sagastume: Zalantzarik gabe, prekarizazioak ere izan du eraginik autoikaskuntzaren gorakadan.

Arakama: Bizitza aurrera eramateko nahiko lan, eta euskaltegian ere konpromisoa hartzeko, antzeko. Dena bateratu behar dute, lana, fa-

«Gaur egungo egoeraren aurrean erlaxatuta daude; eta oso kezkarria da hori»

AXUN LOPETEGI



milia, ikasketak... Ez da posible. Aipatutako arrazoi guzti horiek eragina dute. Azken urteetan asko igo da: aurten denera 200 ikasle ditugu, eta 85 autoikaskuntzan dabilta.

Sagastume: Garbi dago autoikaskuntza egiteko profil bat behar duzula. Ez da egokia jende guztiarentzat. Jendea oso autonomoa bada, ikasten baldin badaki, ikasketa estrategiak zehazteko gai bada... Horientzat oso egokia da. Baina jarraikortasuna eta antolatze gaitasuna behar dira, eta B2 mailatik gora behar du izan. Aurretik, interakzioa behar da; eta are gehiago, erabilera bada gure erronka. Jakin jende askok daki euskaraz; gertatzen dena da ez dutela erabiltzen.

Arakama: Gainera azterketa ez da bakarra: lau trebetasun landu behar dira. Jende asko itsutzen da idatziarekin, eta gainerako alorrak ez dituzte kontuan hartzen. Pentsatzen dute berez etorriko zaiela ahozkoa... Ez dago orekatuta.

Nori dago zuzenduta autoikaskuntzaren eredua?

Sagastume: Autoikaskuntzara etortzen diren zenbaitekin pentsatu izan dut ez direla profil egokia etxean

ikasteko. Interakzioa beharrezkoa da hizkuntza ondo menperatzeko. Orduan, justu bi muturretan gaude. Garai batean zergatik ikasi genuen baliabide gutxiagorekin? Elkartu egiten ginelako.

Arakama: Eta elkartzeko gogoia zegoelako. Gaur egun, esate baterako, C1 maiako ikasle bat gai bada burujabea izateko, bere izaera ere halakoa delako, ba oso ondo. Baina C1 mailan egoteak esan nahi du badiela ezagutza nahikoa hori egiteko.

Lopetegi: Hori da. Autoikaskuntza dago bideratuta gehiago profil horietara: C1, C2, B2 ere bai, agian... Baina, hortik gora; ziur.

Arakama: Baina B2 titulua ateratzeko ere asko, agian, idatziz badira gai; baina gero, hitz egiteko ez. Jendea ez zaio buruan sartzen hizkuntza batean segurtasuna eta jarioa garatzeko praktikatu egin behar dela, eta hori hitz egitea da. Haien kabuz kanpoan egiten ez badute -izan lotsagatik edo dena delakoagatik- euskaltegian eduki beharko lukete talde bat, non han praktikatuko duten. Baina jendeari galbana ematen dio.

Nolakoa da zuentzat euskaltegiko irakasle izatea?

Sagastume: Gure lanak ez dauka inongo prestigiorik, baina, niretzat oso gogobetegarria da. Ikasle batekin hasten zarenean, batzuetan, garapena ez da bakarrik errendimenduari dagokiona, baizik eta baita ere pentsaera aldaketak, aurreiritziei buelta ematea... Hori sekulakoa da.

Lopetegi: Gizartean ez dago batere aitortuta egiten dugun lana, baina, ni balioetsia sentitzen naiz ikasle-en partetik. Administrazio aldetik ere nahaspila handia dago, ez gaituzte kontuan hartzen. Baina, ikasleek balioesten nautela sentitzen dut, eta hori dela eta, nik ere nire onena ematen diet; eta hori nabaritu egiten da. Esan gabe doa urte hauetan denetik ikusi dugula, ia-ia psikologo lanak ere egin behar izan ditugu... Baina, niri asko gustatzen zait hartu-eman hori.


Arakama: Oso polita da irakaskuntza prozesua. Askotan ikasleek duten euskaldunen eredu bakarria irakaslea da. Ardura handia da, baina, oso polita da azaltzea gure kultura nolakoa den, gizartea nola ulertzen dugun...

Irakasle lana, ordea, ez da mugatzen euskara irakastera.

Lopetegi: Askok aldatu da hori ere. Ikasleei ez diegu azaltzen euskara bakarrik, baita ere gu zer garen, nola bizi garen, zer den hau... Ikastetxe batean egiten dena ikasleekin. Kanpotik datozenek ez daukate hementxo kulturaren informaziorik, ez dakite nola bizi garen; eta hori dena ere transmititu behar diezu. Kultur balio horiek zuk dituzun baliabide txikiekin irakatsi behar dizkiezu, baina, poliki-poliki ezagutzen joaten dira; eta hori oso gogobetegarria da.

Arakama: Askorentzat oso deigarria da gizarte ez hain erlijiosu batera datozela eta, agian, norbait hiltzen da, baina, ez dago hileta elizkizunik edo, agian, familiak adierazten du ez duela jendea etortzerik nahi; eta hori ere azaldu egin behar diezu. Beste adibide bat izan liteke sexu bereko bikoteena; batzuei ez zaie buruan sartzen. Egoera xeble asko sortzen dira.

Sortu zenean zein zen erronka nagusia? Aldatu al da urte hauetan?



Sagastume: Garai hartan erronka zen nola edo hala euskaraz egitea; eta baliabide askorik gabe egiten genuen. Gaur egun askoz baliabide gehiago ditugu. Baina lehen ez zen hainbeste idatzia, kalean lan gehiago egiten genuen. Jendea euskaraz hizketan jartzea, hori zen helburua.

Arakama: Jendeak ere bazuen halako motibazio bat: edukia eman eta lanean bakarrik hasten zen. Zentzu horretan, metodologian ere kristoren alde dago. Garai hartan dena zen edukia: gramatika, erabilera arauak...

Lopetegi: Nik ere ez dakit nola, baina jendea jarri egiten genuen horretan. Gaur egun mintza-praktika esaten dena kalean egiten genuen; baita tabernan ere! Giroa bestelakoa zen zentzu askotan: parrandan, afarietan, kanpo ekintzak egiteko garaian...



«Hainbat esparruk huts egiten dutenez, euskaltegien beharrak hortxe jarraitzen du»

AINARA ARAKAMA

Sozializatzeko bide bat ere bazen euskara ikastea.

Gaur egun, ordea, izugarri aldatu da. Irakaskuntza eredutik hasita: Europako markoa sortu zen, eta gu ere hor gaude. Orain lau trebetasun landu behar ditugu, eginkizun komunikatiboa landu behar da... Pila bat aldatu da.

Sagastume: Eta ez hori bakarrik, askotan, azterketara begira egiten dugu lan: «B titulua behar du nola edo hala, beraz, prestatu dezagun hori». Gaur egun ez da ia batere kalean lantzen. Orduan, nahiz eta baliabide gehiago eduki, zertara iristen gara? Hiru edo lau trebetasun menperatzen ditugu, baina, benetan hizkuntzak behar duena ez dugu lortzen.

Arakama: Lehen erronka nagusia ezagutza bazen, oraingoa da erabilera; eta zergatik? Bada, eskola araututik ateratako gazte gehienak ezagutza badutelako, baina, ez dutelako erabiltzen. Eskolak prestatzeko garaian ere nabaritzen da hori, helburua izaten da: «Gaur gai izan behar duzu dendara joan eta zerbait euskaraz eskatzeko». Oro har, elkarriketak euskaraz edukitzeko prestatu behar ditugu; ezagutza, izatez, badutelako. Kontraesankorra dirudi, iruditzen baitzait klaseak gaur egun askoz eramangarriagoak direla duela urte batzuk baino.

Berrogei urte ez dira edonola betetzen. Zein izan dira irauteko gakoak?

Lopetegi: Euskaltegiak sortu zirenean, politikariek eta pentsatzen zuten epe bat izango zutela. Alegia, hezkuntza euskaraz izango zela denbora gutxian, eta euskaltegiek, beraz, epe-muga zutela. Uste zuten horgei urteren buruan eskoletatik gazteak euskara jakiten aterako zirela, eta gurea bukatu egingo zela.

Arakama: Kalkulu matematikoak egin zituzten, eta horren arabera sortu zituzten euskaltegiak. Begira, ordea, non gauden. Azkenean, beharra izan da irauteko gakoa. Baina, jakina, urteak ez dira alferrik pasa.

Sagastume: Noski ezetz, eta kontuz: lan asko egin da urte horietan. Iruditzen zaigu beti izan dela horrela,

baina, ez; lan asko egin da berrogei urtean. Ez, ordea, pentsatzen zena bezain beste.

Lopetegi: Garai hartan pentsatzen zuten gazteak eskolara joatearekin bakarrik euskaraz alfabetatuko zirela. Kontrara, euskaltegiari egozten zioten helburua zen helduak

euskaraz alfabetatzea eta euskalduntzea.

Baina ez da horren erraza, ezta?

Arakama: Errealitateak erakutsi du ez dela hain sinplea.

Lopetegi: Gainera, jendea ez da jabetzen garai batean borrokatu egin behar izan zela euskararen alde zenbait gauza lortzeko. Belaunaldi batzuek ezagutu dute hori, baina, gazteek dena eginda jaso dute. Hori dela eta, gaur egungo egoeraren aurrean erlaxatuta daude; eta oso kezkarria da hori.

Sagastume: Jendeak pentsatzen du euskara eskolan ikasi duelako etxean ez duela lanik egin behar. Askotan, gainera, etxeko egoera linguistikoa mistoa izaten da, eta horrek zer dakarren? Bada, oro har, ez dela behar bezala zaintzen hizkuntza bakoitzaren kalitatea eta eskaintzen zaion denbora. Praktikan, beraz, ume eta gazte askoren errealitate linguistikoa ez dago orekatuta.

Lopetegi: Beste kontu bat da ume askok lotzen dutela euskara arlo akademikoarekin, eta ondo pasatzea edo aisialdia gaztelarekin. Modernoa eta dibertigarria da gaztelera; eta euskara, berriz, aspergarria. Erabileran kristoren lana dago, eta ez ostalaritzan edo merkataritzan bakarrik... Orokorrean baizik.

Arakama: Beti esaten dugu eskolaz kanpoko jardueretan ere umeek euskaraz egin beharko luketela. Familiari ere bai, jakina. Eta dena ondo bidean, familiak eta eskolak huts egingo balute, gizarteko beste ekintzetan ere egon beharko luke euskarak. Baina, hainbat esparruk huts egiten dutenez, euskaltegien beharrak hortxe jarraitzen du.

Sagastume: Itxiko bagenu dena euskaldundu dugulako... [Barrez]. Baina, ez da errealitatea.

URRATSEZ URRATS



O MAILA

Ikasgelako atea ireki eta isiltasuna gailendu da; jakin-minez, zazpi ikasle atera begira. Aurkezpenak datoz lehenik: poliki eta segurtasun handirik gabe, baina, zuzen aurkeztu dute euren burua. Ikasle bi hogeit urteren bueltan, beste bi laugarren hamarkada pasata eta bizpahiru erretiratu. Jatorriak ere denetariakoak: tolosarrak, donostiarrak... baita latinoamerikarrak eta espainiarrak ere.

Eta zergatik erabaki duten euskara ikastea? Errepi-katu egiten dira motiboak: hainbatek aipatu dute seme-alaba edo iloba euskaldunak dituztela, eta haiekin euskaraz egin nahi dutela eurek ere. Besteren batek kontatu du jendaurrean egiten duela lan eta, beraz, beharrezko duela euskara menperatzea. Etorri berrientzat, aldiz, lehen urratsak dira ingurua ulertze-ko eta bertakotzen hasteko.

Euskaltegiko maila baxueneko gela da, eta gelaki-deek ere ezagutza-maila ezberdinak dituzte. Irakas-leak aitortu du hori dela eragozpen nagusietako bat, hain justu, profil ezberdinak bateratzea eta guztiekin batera lan egitea. Dena dela, ikasleei begira eta poliki ahoskatuz esan du talde «oso langilea» dela, eta «lan handia» egiten ari direla. Zazpi irribarre jaso ditu or-dainetan, eta haiek ere aitortu dute «pazientzia han-dia» duela berak eta «oso gustura» joaten direla kla-seetara.



B1 MAILA

Bigarren atea zabaldu ondotik, beste sei begirada; izatez, gehiago daude matrikulatuta, baina, hainbat arrazoi direla medio, dozena erdi ikaslek osatzen omen dute ohiko taldea. Euren burua aurkeztu dute: hogeit eta berrogei urteren artean guztiek. Jatorriak, berriz, aurreko gelakoak bezain denetari-koak: Ibarra, Kantabria, Tolosa, Maroko, Basauri, Ar-gentina...

Oraindik ere zalantzati egiten dute hitz, baina, na-bari zaie beste segurtasun eta jario bat. Irakasleak ere abiadura handiagoan egiten die, eta gelako arbe-lean ikus daitezke zenbait gramatika arauen azalpe-nak. Euskara ikasteko arrazoiak aipatzean bi nagusitu dira: lanerako komeni izatea eta jendea ulertzea. Bai-na, hemen ere bada seme-alabekin euskaraz aritu nahi duelako ikasten duenik.

Aho batez esan dute ikasleek «egitekorik zailena» hitz egitea dela; elkarrizketa batean erantzuna azkar eman beharrak urduri jartzen ditu eta horrek traba egiten omen die. Beste zailtasun bat ei da euskaraz pentsatzea; ikasleek erdaraz pentsatzen dute lehe-nik; gero, itzuli; eta, azkenik, euskaraz adierazi. Bide beretik, kalean, guztiek sentitu omen dute behin bai-no gehiagotan jendeak ez duela pazientziarik haie-kin, eta askotan jo behar izan omen dute erdarara egoera deserosoa ez luzatzeko.



C1 MAILA

Gelara sartu orduko nabari da aldaketa: elkarriketa guztiak dira euskaraz eta, salbuespenak salbuespen, ez da erdarazko hitzik aditzen. Ikasleen adinetan ere bada alderik: sei ikasletik lau dabilta hemezortzi eta hogeita bost urte artean; berrogei urteren bueltan dabil bat, eta erretiratu berri da beste bat. Tolosako zein eskualdeko beste zenbait herritako jendea da, eta guztiak, euskaldunak.

Taldeko bakarra ari da euskara ikasten nahi hutsagatik; gainerakoek hizkuntzaren ezagutza hobetu nahi badute ere, titulua eskuratzea dute helbururik behinena. Gehienek aipatu dute lanerako komeni zaiela ziurtagiria, izan aukerak zabaltzen dizkielako edo posturako baldintza delako.

Oro har, beste ikasketa batzuekin uztartzen dute euskaltegia, eta bada lanarekin bateratzen duenik ere. Astean bi saio izaten dituzte eta bina ordu irauten dute. Hasieran, batik bat idazketa landu zuten, baina, tarteak ere izan zuten esaera zaharrak ikasteko eta berridazketak egiteko. Orain, berriz, idazmen frogagindak, ahozkoasuna dute ikasgai.

Ikasturtea hasi zutenetik nabaritzen omen dute hobeakuntza. Zalantzak ere ugaritu ei zaizkie, baina, orokorrean, erraztasuna eta zuzentasuna handitu dute bai idatziz, bai ahoz. Dena dela, konturatu omen dira oraindik «ikasteko asko» dutela.



C2 MAILA

Euskara hutsetik euskara hutsera alde handirik ez dagoela pentsa liteke, ez da horrela, ordea. Hogeita hamar urteren bueltan eserita bost ikasle, Euskal Herri-tarrak eta euskaldunak guztiak. Gehienek lanarekin uztartzen dituzte euskaltegiko ikasketak, eta langabezian dago bat.

Ezagutza maila prestatzeko arrazoietan ñabardurarik sumatzen bada ere, denek dute erro bera: lanpostu baterako baldintza izatea. Ikasleek azaldu dutenez, administrazio publikoko gero eta postu gehiagotan ari dira ezartzen laugarren hizkuntza eskakizuna; beraz, oraindik ezinbesteko baldintza ez bada ere, «oso komenigarria» omen da aipatu ziurtagiria eskuratzea.

Hasieran, idazteko gaitasunari eman omen zioten garrantzia, eta aldi berean aritu ziren teoria lantzen, arau batzuk ikasten eta beste batzuk gogoratzen. Egin zuten idazketa proba eta, orain, ahozkoasuna ari dira fintzen. Zailena, ordea, idazketa omen da haientzat; besteak beste, azaldu dute ohitura oker batzuk oso barneratuta zituztela, eta ez dela erraza horiek zuzentzea.

Bestalde, kurtsoaren hasieratik hona aldea nabaritzen dutela ere aitortu dute. Gaur egun kontzientzia handiagoa ei dute idazten eta esaten dutenaz, eta begirada zein entzumena zaildu zaiela-eta, errazago hautematen omen dituzte akatsak.



JOSU LOPEZ-GAZPIO
KIMIKAN DOKTOREA
ETA ZIENTZIA
DIBULGATZAILEA

Fentaniloa: modan dagoen droga

Apiril hasieran bolo-bolo ibili zen AEBetako janari lasterreko marka ezagun baten sukaldean grabatutako bideo bat. Bideoan langile bat ikus zitekeen, drogen efektupean egoteko itxurarekin. Honek zalaparta ugari sortu zuen eta handik gutxira, fentanilo delako droga aipatzen hasi zen. Fentaniloa ez da droga berria, baina, bai geroz eta kezka handiagoa sortu behar diguna.

Azken hamarkadan fentaniloaren kontsumoa izugarri handitu da. Espainiako Estatuaren kasuan, erabilera laukoiztu egin dela jotzen da. AEBetan egoera oso larria dela jakinarazi dute. Bertan, fentanilo gaindosiagatik gertatutako heriotzak %90 handitu dira eta 2021. urtean 70.000 lagun hil ziren. Sarritan, gainera, fentaniloa beste drogekin batera kontsumitzen da -alkohola, heroina edo morfina- eta horrek arriskua asko handitzen du. Fentaniloa medikuntzan oso baliagarria den arren, azken urteotan legez kanpoko salerosketak asko ugairitu dira. Izena oraindik oso

ezaguna ez den arren -agian 2016an egin zen ezaguna, Prince abeslaria fentanilo gaindosi baten kausaz hil zenean-, ziur geroz eta gehiago entzungo dugula hurrengo urteetan.

Lehenik eta behin, koka gaitzen: fentaniloa analgesiko gisa erabiltzen den opioidea da. Opiodeak opioaren antzeko efektuak eragiten dituzten substantziak dira. Hain zuzen ere, organismoan ditugun hartzaile opioideekin elkartzen dira. Horren ondorioz, opioideak gai dira nerbio-sistema zentrolean zein urdail-hesteetako traktuan asaldurak eragiteko. Opiodeak hiru talde handitan sailkatzen dira: opioa-

ren alkaloideak -morfina eta kodeina, kasu-, opioide erdisintetikoak -oxikodona eta heroina, esaterako- eta, azkenik, guztiz sintetikoak diren opioideak -azken talde honetan legoke fentaniloa bera, baina, baita metadona eta petidina ere, adibidez-.

Esan bezala, fentaniloa analgesiko narkotikoa da eta minaren aurkako tratamenduetan erabiltzen da, esate baterako, minbizi kasuetan. Fentani-

«Fentaniloa medikuntzan oso baliagarria den arren, azken urteotan legez kanpoko salerosketak asko ugairitu dira»



loa neurrian erabiltzen da beti; izan ere, jakina da adikzioa sortzeko arriskua handia dela. Fentaniloa morfina baino ehun aldiz eta heroina baino 50 aldiz eraginkorragoa da. Legez kanpoko drogen artean, morfinaren eta heroinaren antzeko efektuak eragiten dituenek, baina, dosi txikiagoa nahikoa denez eta merkeagoa denez, substantzia piskoaktiboen merkatuan geroz eta presentzia ugariagoa du. Arriskua, gainera, ez da bakarrik fentaniloak berak duena. Dro-

ga sintetikoen kasuan arrunta da substantzia desberdinak nahastea eta, oro har, fentaniloa beste hainbat drogekin nahasten da: heroinarekin, MDMArekin, kokainarekin, eta abar. Fentanilo kantitate txikiak nahikoak direnez kontsumitzaileek bilatzen duten efektua lortzeko, osagai eraginkorra da droga sintetikoetan. Hau bereziki arriskutsua da; izan ere, droga batek dituen osagaiak zeintzuk diren jakin gabe, ezinezkoa da albo-ondorioak kontrolpean izatea eta gaindosia izateko arriskua askoz ere handiagoa da.

Fentaniloak eragiten dituen albo-ondorioen artean, aipatzekoak dira hurrengoak: zoriontasun izugarriaren pertzepzioa, goragalea, lo astuna eta arnasa hartzeko arazoak. Gaindosi kasuetan, gaixoaren arnasa asko moteltzen da eta guztiz gelditzera iritsi daiteke. Horrek garunera iristen den oxigeno kantitatea murrizten du eta hipoxia gerta daiteke. Hipoxiaren ondorioz koma, garuneko kalte itzulezinak eta heriotza gerta daitezke, kasurik larrienetan. Esan bezala, fentaniloa geroz eta presenteago egongo den droga da eta adikzio kasuak ere larriak izan daitezke. Behin mendekotasuna sortuta, organismoak droga horren beharra dauka martxan jarraitzeko eta geroz eta zailagoa da fentanilo kontsumoa uztea.

Nazionalismoa. Abertzaletasuna. Hezkuntza.



ION MINTEGIAGA
'MINDE'
LANGILEA

Nazio zapaldu baten barruan nazionalismoa eta abertzaletasunaren arteko diferentzia lausoa gertatu daiteke zenbaitetan.

Orokorrean nahiko onartua da nazionalismoa norberaren nazioa besteen gainetik

jartzen duen hori dela; eta, abertzaletasuna berriz, norberaren herriarekiko maitasuna eta konpromisoa duena, aldamenekoak zapaldu gabe.

Praktikan bi kontzeptuak askotan nahasten direla jabetuko gara, eta hizkuntzak berak ere garrantzia baduela.

nean norberaren zapalkuntza gutxiestea iraultzaile komunistaren batzuei (gauza jakina da Leninek berak gogoratu arazi ziola Rosa Luxemburgori bere poloniar izaeraz, orduko hartan errusiar tsarismoaren menpe zegoenean).

Nire kasuan, esango nuke abertzaletasunera hizkuntzarekiko maitasunetik iritsi nintzela, eta euskaldun bezala integralki garatu ezin horrek, eta nire begiekin ikusten nuen errepresio gordinak, Espainiarekiko ukazio erradikal batera eraman nindutela, estatu egituraz harago, Espainiaren adierazpen guztietara; kultura barne.

Eta momentu horretan, Tolosako Laskorain ikastolan, espainiar literaturako irakasleak, bizitzan sekula eman didaten ikasbiderik handienetakoa eman zidan: bere irakasgaian batere interesik ez nuela, es-

«Orokorrean nahiko onartua da nazionalismoa norberaren nazioa besteen gainetik jartzen duen hori dela; eta, abertzaletasuna berriz, norberaren herriarekiko maitasuna eta konpromisoa duena, aldemenekoak zapaldu gabe»

Demagun, espainiar zale *patriota* bat nazionalismotik gertuago legoke izatez. Partido Nacionalista Vascoko jeltzalea abertzaletasunetik; 60. hamarkadako ezkerreko euskal *nazionalista iraultzaileak* bezala.

Agian, nazio arazo nabarmenik ez duten herrialdeetan dena sinpleagoa da, baina nazio zapalkuntzak ematen diren herrietan, bestearen ukazioak abertzaletasunetik nazionalismora sartu-irtenak egitea ekarri liezaioke zapalduari, gandorra tentetzea nazionalista konbentzituari edo internazionalismoaren ize-

painiarra zelako *de facto* alboratzen nuela, baina berak ordurako gazteleraz txukun xamar idazten nituen artikulak irakurriak zituela, eta gaian sakontzen banuen uste ez nuen gozamina topatuko nuela bota zidan.

Ordutik aurrera *Cinco horas con Mario*, *Tartufo* eta hainbat klasiko espainiar beste begi batzuekin hartu nituen, testu iruzkinekin gozatzen hasi nintzen. Begirada zabaldu zidan. Kulturala eta politikoa. Zimenduak mugituz. Nazionalismotik urrunduz abertzaletasunera gerturatzeko.

In memoriam



**OLATZ
PEÑAGARIKANO
IRAZUSTA**

Berriki gure etxean bi urtemuga izan ditugu, gurekin ez dauden senideena hain zuzen. Gehiago kontatu gabe, lotsa pixka batekin aitortuko dizuet bat zeharo pasa zaidala -bai, nire memoria hobetu daiteke-, eta hara!, errudun sentitu naiz.

Eta kulpatik harago, pentsatzen jarri naiz norbako bakoitzak nola bizi izaten dituen data esanguratsu horiek, bereziki tristeak direnean. Samina eramangarria egin denean, eztarrian trabatzen ez zaigunean, nola gogoratzen ditugu? Ingurukoekin partekatzen al dugu egun horren esangura? Ez baita gauza bera esatea «gaur gurasoak ezkondu zirela 20 urte dira» edo «duela hiru urte joan zitzaigun amona» (nola ez, eufemismoak hil aditza saihesteko). Aztertzen hasiz gero, nabarmena da bietan urteurren baten berri ematen ari garela, baina esan gabe doa sententzia bakoitzak sentiarazten diguna zeharo desberdina dela, eta gainerakoengan sortzen dugun erreakzioa ere halakoxea da. Hortxe dago gakoa. Ez dugu zaurgarri edo ahul agertu nahi besteen aurrean. Pozgarria kontatu, tristeia isildu.

Orduan bururatu zait ez dela bidezkoa. Ez dela bidezkoa behin gurekin egon zirenak, zoriontsu egin gintuzten horiek hain erraz ahaztea. Eta badakit ez ditugula ahazten, nahita ere ezingo genuke, baina zentzu batean ez hitz egitea ahaztea ere bada, isiltzea izan direla ahaztea da.

Bateren bati auskalo noiz auskalo non entzun nion nahikoa dugula bizirik gaudenokin, zer eta hildakoekin kezkatzen hasteko. Ados, aurrera egin behar da, ez dauka erremediorik. Baina horra beste *topikazo* bat: guk ez baditugu oroitzen beste inork ez du egingo. Horrela soilik egon daitezke bizirik, gure memorietan bada ere.

Konturatuko zineten azken urteotan indarra hartu duela memoriaren ariketak. Erreparaziotzat hartzen da senitartekoak duintasunez oroitzea, gure lurraldean areago, gerra zibilak lokaztuta eta zapalduta hainbeste dauden honetan. Gaizki ulerturik gabe, ez nuke konparaziorik egin nahi. Dena den, eskala txikiagoan bada ere, bakean geratzen gara maite ditugunekin gogoratuta. Sanoa da, gizatiarra, humanoa. Beraz, zergatik lotsatu? Zer dela eta erreparo hori? Ozen esan dezagun zeintzuk izan ziren, ondorengoek izan dezatela euren berri. Nork bere erara, baina oroitu ditzagun, mesedez. Memoria sano baten alde.

**«Bakean
geratzen gara
maite
ditugunekin
gogoratuta.
Sanoa da,
gizatiarra,
humanoa.
Beraz, zergatik
lotsatu?»**



saridunak

Atarikideentzat **sorta bat** dugu

atariako
Poltsa, katilua
eta kantiplora

• Izaskun Izagirre
(Alegia)

Saria eskuratzeko Ataria jarriko da zuekin harremanetan



Deitu 943 65 56 95
edo
pasa bulegotik!



ESKURATU MARIA ALTUNA ILUSTRATZAILEAK DISEINATUTAKO **ataria**KO MATERIALA!

KATILUA
Atarikideak:
9 euro.
Atarikide ez direnak:
11 euro.



BOTILA
Atarikideak:
9 euro.
Atarikide ez direnak:
11 euro.



POLTSA
Atarikideak:
8 euro.
Atarikide ez direnak:
10 euro.



PACK-A
Atarikideak:
20 euro.
Atarikide ez direnak:
26 euro.

AGENDA

OSTIRALA

EKAINAK 2

ALTZO

ASENTZIO EGUNEKO FESTA

19:00. Villabonako Eresargi abesbatzaren emanaldia. Loatzo Musika Eskolako ikasleek alaiturik, pintxoak eta edaria banatuko da. Altzo azpiko elizan.

AMASA-VILLABONA

77. BEHAR ZANA FESTA

17:15. Txupinazoa, bola tokian.
17:30. Bola tiraldia, ume eta helduentzat. Buruhandi eta erraldoiak herriko kaleetan barrena.
18:00. Sagardo dastaketa bolatokian, eguraldi txarra eginez gero Berdura plazan.

LASTERBIDEAN

22:00. Kontzertuak Aljibean, Sahrijai elkartearen eskutik, Etxekalte eta Kuartz taldeak. Sarrera aurretik 5 euro eta bertan, 8 euro.

AMEZKETA

DANTZA ERAKUSTALDIA

18:30. Euskal dantzen erakustaldia. Ixone Urkidi irakaslearekin urtean zehar ikasitakoa erakusteko. Larrunari pilotalekuan.

ANOETA

JAIK

19:00. Herriarteko dantzari gazteen topaketa, plazan.
22:30. Bertso saioa elizan: Amets Arzallus Antia, Sustrai Colina Acordarrementeria, Nerea Ibarzabal Salegi, Joanes Illarregi Marzol, Maialen Lujanbio Zugasti eta Alaia Martin Etxebeste. Gai jartzailea: Maddi Sarasola Eizmendi.

LEABURU-TXARAMA

TXARAMAKO ASTEBURU

KULTURALA

20:00. Patata tortilla lehiaketa, sariak egongo dira.

21:00. Afaria eta Txan Magoa.

TOLOSA

FOOD MARKET

19:00. Estrella electronica.

22:30. Andoni Ollokiegi, Frontonen.

BERAZUBIKO ASTE KULTURALA

19:00. *Berazubi 1958-2023 argazki* erakusketaren inaugurazioa, lokaleko plazan.

HITZALDIA

19:30. Eneagrama. *Guia para conocer y aceptar a tu mejor amigo*. Doan. Juanlu Jauregirekin. Amarozko auzo etxean.

DANTZA IKUSKIZUNA

20:00. Alurr dantza taldearen *Laia* ikuskizuna, Topic-en.

***Irakurri erreportajea 26-29 orrietan.**

ANTZERKIA

22:00. *Lehendakari gaia*.

Txalo produkzioak. Leidorren, Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galartzarekin.

KONTZERTUA

22:00. Animales Muertos eta El exterminio de la raza del mono, Bonberenean. Sarrera 10 euro.

ZIZURKIL

IBILALDIA

Pausoka, adinak ez du inporta.

10:00. Ibilaldia erretirodunentzat. 3 talde aukeran:

Burrusti baserri pareraino, Martxentaundi baserriraino edo Asteasuraino.

12:00. Hamaiketakoa, plazan.

ATE IREKI SAIOA

Danena futbol taldeko ate irekiak.

LARUNBATA

EKAINAK 3

ALBIZTUR / BIDANIA-GOIAZ

IRTEERA

Gasteizera irteera, Saiaz Mankomunitateko emakumeentzat.

ALEGIA

FESTA

Intxurre futbol taldearen denboraldi amaierako festa.

ALTZO

OUTLET FESTA

Larunbata eta igandea. Migdala outlet festa. Arropa eta osagarriak. Sarrera doan. Taberna eta musika zuzenean. 10:30-13:30 eta 16:30-20:00.

HERRIARTEKO PILOTA

TXAPELKETA

11:00. Altzo vs. Ataun. Final laurdenak. Bueltako partidak. Frontoian.

SEGA TXAPELKETA

17:00. Euskal Herriko XIV. Bakarkako Sega Ligako azken saioa. Zialtzeta inguruko belazean.

AMASA-VILLABONA

LASTERBIDEAN

09:00. Dorsal banaketa, kiroldegian.

10:00. Pepoberoketa, plazan.

11:00. Lasterketa luzea, plazan.

12:15. Lasterketa motza, plazan.

13:00. Sari banaketa, plazan.

14:30. Bazkaria, ikastolan.

Ondoren. Konbikarparen irekiera.

16:00. Haurren txokoa, ikastolan.

17:30. Distopia elektrotzaranga.

17:30. Pilota partidak Bearzanan.

20:30. Kontzertuak, plazan.

XSakara, McOnak, DJ Bull.

77. BEHAR ZANA FESTA

10:00. X. Xake txapelketa, elkartean.

Goizean zehar. Behar Zanako Pilotarien Pilota Topaketa, Olaederra pilotalekuan eta Bear Zana pilotalekuan.

Eguerdian. Pilota eskolako haurren bazkaria.

17:30. Pilota jaialdia Behar Zana pilotalekuan. Mikel Goñiren agur bira, Xala eta Pascual herrian.

20:15. Bazkide afaria.

23:15. Behar Zana danborrada.

AMEZKETA

KONTZERTUA

18:00. Alaitz Artolaren piano errezitaldia. Ikasketa amaierako lanaren aurkezpena. Kultur etxean.

ANOETA

JAIK

KUADRILLEN EGUNA

09:30. Krosa haurrentzat, plazan.

10:45. Helduen krosa, Ivan Torres VII. memoriala.

12:00. Kuadrillen Eguneako txupinazoa eta poteoa.

14:00. Kuadrillen bazkaria, frontoian.

16:30. Kuadrillen arteko jokoak, plazan.

19:00. Kuadrillen poteoa, elektrotxarangarekin.

21:00. Kuadrillen afaria, frontoian.

23:00. Kilimak taldea, plazan.

IBARRA

IBARRAKO

I. MENDI BIZIKLETA FESTA

09:00. Helduak (BTT eta e-Bikeak). 3 orduko buelta.

10:30. Gaztetxoak, 2 orduko buelta (Zazpibide inguruan).

14:00. Barrikotea. Bakoitzak bere bazkaria eramanda.

16:00. Ginkanak, tailerrak, trial erakustaldia Irene Caminos eta bere ikasleen eskutik.

Bigarren eskuko bizikleta azoka.

10:00-14:00. Materiala jaso eta sailkatu.

16:00-19:00. Salmenta.



LARRAUL

ERRETIROA

Larunbatean eta igandean. Yoga, biodantza eta meditazioa. Bazkaria, afaria, gosaria eta egonaldia barne 95 euro. Ainhua Kolomo eta Anarekin (Ekhima).

LEABURU-TXARAMA

TXARAMAKO ASTEBURU

KULTURALA

19:00. *Mee Too* antzezlan, kultur etxean.

21:00. Bertso afaria elkartean, Onintza Enbeita eta Julio Soto.

Afal ostean. Txikiren bakarrikzeta.

TOLOSA

GAZTE TOPAGUNEA

3x3 saskibaloitxo txapelketa.

ASANBLADA IREKIA

12:00. Itaiak deitutako asanblada irekia. Tolosako sanjoanetarako antolatzeko. Kultur etxean.

ESKUZ FERI FESTA

11:00-15:00 eta 17:00-19:00.

Artisau azoka eta *Jostearen plazera* tailerra. Balerdipeko erleen ezti gastronomia.

11:00-15:00. LabPaper Tolosa laborategia, papera egiteko tailerra.

15:00. Paella.

12:30 eta 17:00. Origami tailerra.

13:30. Kinbonbo Brass Band.

18:00. DJ Talo.

18:00-20:00. Euskal sagardo probaketa.

19:00. Yogurinha Boroba.

20:00. DJ Baleike.

21:00. Nikotina.

Egun guztian zehar. Artisau garagardoa, euskal sagardoa, ekotaloak eta etxeko pizzak. 3 tabernan.

BERAZUBIKO ASTE KULTURALA

11:00. III. Munduko Txapel Jaurtiketa Lehiaketa. Estadioan.

16:00. Munduko kulturen topaketa. Gastronomia, musika, artisautza.

16:00-20:00. Bigarren eskuko azoka.

21:00. Afaria Goya hamburgesekin.

KONTZERTUA

22:00. Parabellum taldea Bonberenean izango da. Sarrera 10 euro.

ZIZURKIL

DANENA EGUNA

Goizean. Ginkana eta jokoak.

Ondoren. Futbol partidak.

Eguerdian. Bazkaria Joxe Arregi plazan.

IGANDEA

EKAINAK 4

ALTZO

TOPAKETA

18:00. Herriarteko dantzari gazteen topaketa. Altxoko Artea, Ibarako Alurr, Lazkaoko Oin-Arin eta Ordiziako Amets Bide dantza taldeetako dantzari gazteek emanaldia eskainiko dute herriko plazan (euria bada eskolako aterpean).

AMASA-VILLABONA

77. BEHAR ZANA FESTA

09:00. Diana Loatzo musika eskolako Geronimo Dultzaina taldearen eskutik.

10:30. Behar Zana gaztetxoek joko garbi partidak.

Jarraian. Errebote partida.

14:30. Gonbidatuen bazkaria, elkartean.

ANOETA

JAIK

18:00. Bike-trial erakustaldia: Irene Caminos eta Javi Alonso.

19:00. Gauargi erromeri taldea eta taloak.

BEDAIO

BEDAIOKO XVI. MENDI MARTXA

07:30. Martxa luzea.

08:30. Martxa motza.

LIZARTZA

EKITALDIA

13:00. Ina Zeberio. 25 urte gertatutakoa argitu nahian.

Egiari Zor elkartek antolatutako ekitaldia. Askatasunaren plazan.

TOLOSA

MENDI IRTEERA

07:30. Alpino Uzturren irteera. Zilbeti-Adi-Bizkarreta mendi ibilaldia. Bost ordu eta erdi. San Frantziskotik.

BERAZUBIKO ASTE KULTURALA

10:30. Ehoziri kontzentrazioaren hasiera, Tolosa CF plazako karpetan.

13:30. Topaketaren amaiera eta oparien zozketa.

14:00. Asteburu kulturalako bazkaria.

17:30. Haurrentzako jaia. Mikel Areito Lekinen maleta.

TOLOSADEA

PROBA

Oriako txirrindulari eskolaren Abraham Olano VIII. Martxa. 11 tontor.

ZIZURKIL

IRTEERA

Ezkeltzura irteera. Zizurkilgo Ezkeltzu mendian zentral eolikoa eraikitzeke ekimena aurkeztu du Green Capital enpresak. Ingurua ezagutzeko irteera antolatu du Andatza-Ezkeltzu Bizirik! elkarteak. Hegaztiei, landareei eta ondare arkeologikoari buruzko azalpenak eskainiko dituzte.

09:30. Zizurkilgo PM Otaño plazan.

10:00. Ezkeltzuko magalean (Zizurkil aldetik).

Ondoren. Hamaiketakoak.

ASTELEHENA

EKAINAK 5

ANOETA

ODOLA EMATEA

Anoetan odola emateko aukera egongo da.

IKAZTEGIETA

FURGOBARATZA

18:00-19:00. Gaixotasun eta izurriak. Baratzean dauden arazoei nola aurre egin eta horretarako zein produktu erabili ahal den azalduko dute. Baratzetxean.

IRURA

IPUIN KONTAKETA MUSIKATUA

17:30. Bidaia liluragarria ipuin kontaketa musikatua. 7 urte bitarteko haurrei zuzendurik. Liburutegian.

TOLOSA

HITZALDIA

12:00. Onekak, Euskal Herriko emakume pentsionista taldeak, antolatutako hitzaldia. Emakumea eta zaintza, Nerea Almazanek eskainita. Zerkausian.

ZINEMA



MARLOWE

Larunbata (19:00) eta igandea (19:30).
Tolosa, Leidor.



LAS OCHO MONTAÑAS

Larunbata (21:30) eta astelehena (19:00).
Tolosa, Leidor.

Larunbata (19:30 eta 21:30);
igandea (19:30) eta
astelehena (19:30).
Amasa-Villabona, Gurea.



ALAN GIZA ANTENA

Igandea
(17:00).
Tolosa, Leidor.

GARAI BATEKOA, GAUR EGUNERA

Euskal tradizioan oinarritutako 'Laia' emanaldia estreinatuko du Alurr dantza taldeak, gaur, 20:00etan, Topic aretoan; 22 dantzarik hartuko dute parte, Nagore Zabalaren gidaritzapean

Irati Saizar Artola

Alurr dantza taldeak ikuskizun berri bat estreinatuko du gaur, 20:00etan, Tolosako Topic aretoan. 22 bi dantzari izango dira protagonista, euskal kulturaren historia bilduko duen *Laia* emanaldian, euskal dantzak oinarri hartuta.

Nagore Zabala dantzari eta dantza irakasleak sortu du pieza osoa, «ustekabea». Ikasleekin «formatu txikiko» zerbait egitea zuen buruan: «Alurrek aurrez egindako ikuskizun batetik, Lanabesak emanalditik, pare bat dantza hartu eta herri desberdinetan dantza horiek eskaintzea zen asmoa». Ikasturtea hastearekin batera, entseguen hasi ziren irailean, eta behin dantza horiek ikasita, materiala falta zitzaizela kontatu du Zabalak. «Klaseek jarraitu behar zuten eta pieza berriak behar zituzten ikasleek». Dantza berriak sortzen hasi zen, musika bilatzen, sorkuntza horretan lanean, nolabait.

«Konturatzerako ur handitan sartuta geunden». Eskuartean 50 minutu inguruko ikuskizun bat zutela konturatu ziren, eta atzera bueltarik gabe heldu zioten, gaur oholtzara eramango duten horri. Materiala sortu ahala, forma hartzen joan da, eta gero, detaileak gehitzen aritu direla esan du.

Laia du izena ikuskizunak. «Euskal tradizioan, nekazaritza munduan ikusi daitekeen tresnetako bat da



Joanes Zubia, Arrate Goikoetxea eta Nagore Zabala. **I.S.A.**

laia, lurrari buelta emateko erabiltzen den tresna da». Hortik hasita, euskal tresna ezberdinak agertuko dira emanaldian zehar, laia bera agertuko ez bada ere. Emanaldiak lau multzo izango ditu eta multzo bakoitzean dagozkion tresnak eta materialak erabiliko dituzte: nekazaritza izango da bat, arotza beste bat, burdina ere bai eta itsasoa bestea. «Itsasoa da urrunen geratzen zaigun multzoa, baina Euskal Herrian garrantzia izan duen sektorea da eta ikuskizunean sartzea erabaki genuen». Multzo bakoitzean bizpahiru dantza egingo dituzte.

Material horien esanahia dantzarekin lotzen saiatuko direla esan du Zabalak. Besteak beste, saskiak, ai-

tzurrak, makilak edota ezpatak erabiliko dituzte. Multzo bakoitzeko dantzak hasi aurretik, gainera, hitz batzuk entzungo dira, azalpen gisa: «Dantzari baten ahotza entzungo da, eta garaian kokatzeko balioko du, garai hartan egoera nolakoa zen deskribatuko du eta esaten duen hori dantzariak oholztan irudikatuko dute».

Euskal dantzetan oinarritutako pausoak izango dira ardatz emanaldian. 22 dantzari osatutako taldea da, baina multzo ezberdinetan ez dute dantzari guztiek parte hartuko; izan ere, Zabalak esan duenez, «22 dantzarirentzako koreografiak sortzea nahiko zaila da». Joanes Zubia eta Arrate Goikoetxea dira dantzarietako bi, eta esan dutenez, «urduritasun puntu batekin», baina jendaurrean aurkezteko «gogoz» daude. «Nondik gatozen badakigu, eta dantzatzen dugun hau orain dela urte batzuetako kontua dela jakitea polita da eta hori ikusleari eskaini ahal izateak ilusioa egiten du», esan du Goikoetxeak. Zubiak ere ideia bera du: «Gure guraso edo aitona-amonen bizitza izan daiteke dantzatzen duguna, eta hori oholztara eramatea hunkigarria ere bada».

Musika aukeratzea ere ez dela lan erraza izan esan du dantza irakasleak: «Emanaldian hari batek jarraitu behar du, ez nuen oso gorabeheratsua izatea nahi». Garai bateko egoerak irudikatu eta dantzatuko dituztenez, gaur egungo musikan zentratu gabe, atzera egin eta aurreko garaiak girotzeko musika hautatu duela kontatu du.

Emanaldiko multzo bakoitza pertsonaia batekin irudikatzen saiatu dira eta jantziak ere horren arabera hautatu dituzte. «Alurr dantza taldeak aspalditik jasota dituen jantziak erabiliko dituzte dantzariak; jantzi horiek hartu eta detaile txiki batzuk sartu dizkiegu», esan du Zabalak. Bizpahiru entsegu egin dituzte arropak jantzita. Zubiak azaldu duenez, entseguetan erabiltzen dituzten arropak «beti dira erosoak eta arinak», baina «dantzako trajeak ez dira beti

«Pieza berriak behar zituzten ikasleek, eta konturatzerako ur handitan geunden»

NAGORE ZABALA



hain erosoak izaten, pisua dutelako edota ez direlako hain elastikoak».

Emanaldian, multzotik multzora, beraz, jantzi aldaketak egin beharko dituzte, eta hori ere «beste lan bat gehiago» izango dela dio Zabalak.

Entsegu gelatik aretora

Laia ikuskizuna Tolosako Topic aretoan estreinatuko dute. «Antzoki batek eskaini eta sortzen duena, plaza batek sortzen duenarekin alderatuta oso desberdina da», dio Zabalak. Biak probatu ditu berak, dantzaria ere badelako. «Zortez, mundu hori probatzeko aukera

izan dut eta saiatzen naiz dantzariei helarazten zer sentitu daitekeen, sortzen diren beldurrak, emozioak, urduritasunak... probatzea da aukerarik onena». Izan ere, Alurreko dantzariak lehen aldiz eskainiko dute emanaldi bat Topic bezalako areto batean.

Aste honetan pare bat entsegu bertan egiteko aukera izan dute. Horrela, gaurko saioa «lasaiago» egingo dutela aitortu du Goikoetxeak. Orain arte egin dituzten emanaldietan, lokalean egiten zituzten entseguak azken egunera arte, eta bertako erreferentziak hartuta joaten ziren plazara gero. «Topic-en entseguak eginda, erreferentziak hartu ditugu, erdia non dagoen, oholtzako zein aldetatik sartu eta atera behar dugun... guretzat lagungarria da, ez gaudelako ohituta horrelako aretoetan dantza egitera», esan du Zubiak.

Eguna gerturatu ahala, urduritasuna «gehitu» egin zaiela dio Zubiak. «Dantza batean pausoren bat ez baizaigu ondo ateratzen, hori praktikatu nahi izaten dugu behin eta berriz, baina momentuz, ondo prestatuta goaz, emanaldiak itxura ona du», gehitu du.

Lehen aldia

Nola Zabalentzat, hala dantzariarentzat, «lehen aldia» izango da horrelako emanaldi bat sortu eta oholtzara eramango dutena. «Aurrez koreografiak eta dantzak sortu izan ditut, talde gazteentzat, baina horrelako emanaldi edo ikuskizun bat inoiz ez», esan du Zabalak. «Lan polita da, baina berea eskatzen du, denbora eskaini behar zaio; izateko moduak ere badu zerikusirik hor, nahiko perfektionista naiz eta detaileak ondo lotzea gustatzen zait». Alurreko juntako kideen laguntza zein dantzariena ere izan duela aitortu du.

«Sortze prozesu horretan, dantzariei eskua luzatu diet, edo eskua luzatu baino, laguntza eskatu diet, zenbait erabaki hartzerakoa». Dantzarien eta irakaslearen arteko harremana «oso gertukoa» izan dela esan du Zabalak, eta dantzariak emanaldiaren «oso parte» direla.

«Dantzatzen dugun hau duela urte batzuetako kontua dela jakitea polita da, ilusioa egiten du»

ARRATE GOIKOETXEA



Emanaldia ez du egun batetik bestera sortu. «Egunez egun, ideia desberdinak etorri zaizkit burura, eta klase bakoitzeko ideia ezberdin bat eramaten nuen eta hori proposatzen nien dantzariei». Probatzen joan dira ondoren. Koreografiak sortzeko garaian, lehen ideia hori plazara beste modu batera iristen dela dio koreografoak: «Buruan duzuna praktikan jartzeak gauzak birmoldatzea eskatzen du askotan, edota beste zenbaitetan, irudikatzen duzun hori ezin ezin izaten da aurrera eraman».

Eta lehen aldia izango du taldeak berak ere horre-

lako emanaldi bat eskaintzen. «Herri ezberdinetan bai ibili izan garela, Alurrek eskaintzen dituen emanaldietan, dantza pare bat egiten, baina emanaldi oso bat, hasi eta buka, ez dugu inoiz geuk bakarrik egin», esan du Zubiak. Goikoetxeak esan duenez, ikasurte hasieran esan zien irakasle-



MAIDER AGIRRE

ak emanaldi bat egiteko asmoa zegoela, eta «gustura» hartu zuten erronka.

22 dantzariko taldea

«Ume-umetatik Alurren hasitako bi talde ginen; elkartu egin gintuzten gero, eta jendea dantza uzten joan ahala inguruko herrietako dantzariak etortzen hasi ziren», kontatu du Zubiak. Duela bi urtetik ari dira elkarrekin taldean. Ibarako dantzarietz gain, Biddania-Goiatz, Lezo, Altzo, Tolosa, Zizurkil edota Zaldibiakoek osatzen dute taldea. Momentu honetan, Alurr dantza taldeak duen bigarren talde nagusia da.

Talde «gaztea» da, gehienek 15 eta 18 urte artean dituzte, urte batzuk gehiago edo gutxiago dituzten batzuk egon arren. «Bakoitzak bere pertsonalitatea du, eta dantzari batek edo besteak duen exigentzia maila ez da berdi-

«Taldean egiten dugu dantza, eta horrek ematen du nolabaiteko segurtasun bat»

JOANES ZUBIA

na, baina perfektionistak gara, saiatzen gara behintzat», esan du Zubiak. Taldean dantza egiteak lasaitasuna ere ematen dietela aitortu dute dantzariak, baina bakoitzak bere onena ematen ere ahalegintzen direla dio Zubiak: «Taldean egiten dugu dantza, eta horrek ematen du nolabaiteko segurtasun bat, baina geure buruari begira ere jartzen gara eta hoberena ematen saiatzen gara».

Eta hoberena ematen saiatuko dira gaur iluntzeko emanaldian ere. Topic betetzea dutela helburu diote, eta aurreikuspenak «onak» direla.

«Jendea apropos gu ikustera etorriko da, sarrera erosi dute horretarako, eta guretzat hori motibazio puntua da», dio Zubiak. Gaurko emanaldiaz gain, bizpahiru emanaldi ere lotu dituzte dagoeneko, eta herri gehiagotara iritsi nahi dute, *Laia* emanaldia eskaintzera.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Oso antzeko

giroa. Goizean hodeiak eta os-
tarteak izango ditugu, non
gehienbat erdi eta goi-mailako
hodeiak izango diren eta ateri
eutsiko dion. Arratsaldean berriz
ere bero-hodeiak garatuko dira
eta zaparradaren bat edo beste
izan daiteke. Hala ere, ekaitzeta-
rako probabilitatea txikia izango
da eta ordu gehienetan ateri eu-
tsiko dio. Goizean hego-ekialde-
ko haizea ibiliko da, arratsaldean
ipar-ekialdera egingo duelarik.
Tenperatura igo egingo da, 24-
27 graduan joaz goia.

LARUNBATA

Giro ezegonkorra. Goizean berriz
ere erdi eta goi-mailako hodeiak
ostarteekin tartekatuko dira, giro
argi eta atsegina izango delarik.
Arratsaldean ordea, bero-hodeiak
garatuko dira eta ekaitzetarako jo-
era hartuko du. Zaparradak irre-
gulariki botako ditu, baina tarteka
handi xamarra izango dira. Ipar-
haizea gailenduko da, nahiz eta,
lehen orduetan hego ukitu bat
izan. Tenperatura jaitsi egingo da,
22-24 graduan joaz goia.

IGANDEA

Antzeko giroa. Goizean erdi eta
goi-mailako hodeiak nagusi izan-
go dira, nahiz eta, ostarte batzuk
ikusiko diren. Hala ere, ateri egon-
go da eta giro lasaia izango da.
Arratsaldean berriz ere bero-ho-
deiak garatuko dira eta zaparrada-
ren bat izango da, baina ekaitzeta-
rako joera txikiarekin. Goizean hai-
zea hegotik, baina eguerdian
iparraldera egingo du. Tenperatura
ez da 21-22 gradutik pasako.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

17€

51€

56€

Atarikideek

13€

36€

42€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

EKAINAK 2, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa. Eurne Bengoetxea.

Kale Nagusia, 7.

943 67 06 48.

EKAINAK 3, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.

Korreo kalea, 2.

943 67 01 28.

EKAINAK 4, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Marta Olarreaga Aranburu.

Martin J. Iraola, 10. 943 67 24 38.

EKAINAK 5, ASTELEHENA

AMASA-VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.

Kale Berria, 34. 943 69 11 30.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA.

LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.


atarikideen abantailak



**EHUN
FISIOTERAPIA**
%10eko
deskontua



PANTTA
Ardoa opari



**TXINDOKIKO
ITZALA**
%10eko
deskontua



SOLUMOBEL
100 euroko
deskontua



SABERRI
%15eko
deskontua



**EIZMENDI
ANAIK**
%15eko
deskontua



**GARAZI
LORADENDA**
Lore sorta
opari



ATARIA
Deskontu
bereziak



BASAJAUN
Deskontu
bereziak



**MULTIOPTICAS
TOLOSA**
%15eko
deskontua




**SENA
MASAJE ZENTROA**
%10eko
deskontua



**OREXAKO
OSTATUA**
%5eko
deskontua



Komertzio, taberna edo enpresa bat duzula eta
abantailak eskaini nahi dizkiezula Atarikideei?
Jarri gurekin harremanetan: publi@ataria.eus



ataria.eus/kideak

ANOETAKO JAIK 2023



EKAINAK 2, OSTIRALA

19:00: Herriarteko dantzari gazteen topaketa plazan.
22:30: Bertso saioa elizan: Amets Arzallus Antia, Sustrai Colina Acordarrementeria, Nerea Ibarzabal Salegi, Joanes Illarregi Marzol, Maialen Lujanbio Zugasti eta Alaia Martin Etxebeste. Gai jartzailea: Maddi Sarasola Eizmendi. Laguntzailea: Orbinox.

EKAINAK 3, LARUNBATA KUADRILLEN EGUNA

09:30: Krosa haurrentzat plazan.
10:45: Helduen krosa, Ivan Torres VII. memoria. 12:00: Kuadrillen txupinazoa.
23:00: Kilimak musika taldea plazan.

EKAINAK 4, IGANDEA

18:00: Bike-trial erakustaldia: Irene Caminos eta Javi Alonso.
19:00: Gauargi erromeri taldea eta taloak.

EKAINAK 7, ASTEAZKENA

19:00: Txalapartariak, txupinazoa, kukuaren jaitsiera eta danborrada, Loatzo Musika eskolako txarangarekin. Pregoitarik: Loatzo Musika Eskola.
20:00: Sardina jatea.
21:00: Gabezin erromeria taldea.

EKAINAK 8, OSTEAGUNA KORPUTS EGUNA, UME ETA MOZORRO EGUNA

EGUN HONETAN BARRAKEN PREZIOA MERKEAGOA IZANGO DA
10:30-13:30: Haur parkea eta apar festa, plazan.
17:30: Haur ikuskizuna plazan: Peru Krokodiloa, Kantu Kolore konpainia.
19:00: Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
21:00: Saiheski jatea plazan.
23:00: Xiberoots musika taldea.

EKAINAK 9, OSTIRALA

11:00: Ume jolasak, Kulki taldearekin.
11:00: Herriko jubilatuen arteko toka txapelketa.
13:00: Buruhandi eta erraldoiak Loatzoko trikitilariekin.
19:00: Play-back.
23:30: Kai Nakai eta Liher musika taldeak.

EKAINAK 10, LARUNBATA GAZTEEN EGUNA

09:30: Esku pilota herri txapelketa, haurrak, finalak.
13:00: Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
16:00: Herriko mus txapelketa.
18:00: Gazteen kalejira.
19:00: Sagardo dastatzea.
21:00: Herri afaria.
23:00: Gazteen dantza plazan.
Ondoren, Afu musika taldea.

EKAINAK 11, IGANDEA

10:30-12:30: Haur jolasak plazan, Oinherri herri hezitzaile taldearen eskutik.
12:00: XXX. Pala txapelketako finalak.
Laguntzailea: Peru SL.
12:30: Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
15:30: Txirindulari lasterketa, Mikel Oiarzabal eta Andoni Urkolaren omenez.
18:30: Kale Antzerkia: Kale Gorrian ikuskizuna Barsanti konpainiaren eskutik, plazan.
Ondoren, Bada Giro musika taldea.
21:00: Kukuaren igoera kanpandorrera.
Ondoren, Bada Giro 22:30ak arte.

EKAINAK 17, LARUNBATA

10:00-13:00: Parkour tailerra plazan DBHkoentzat.

EKAINAK 23, OSTIRALA SAN JOAN BEZPERA

18:00: Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
20:30: Herri afaria plazan.
22:15: Txalapartariak eta festa suaren inguruan, aho-soinuarekin.

EKAINAK 24, LARUNBATA SAN JOAN EGUNA, JUBILATUEN EGUNA

12:00: Meza, jubilatuei eskainia.
14:00: Herriko jublatu eta pentsiodunen bazkaria eta dantzaldia.

